



Ura funtsezkoa da ekosistema naturaletarako eta izaki bizidunek bizirauteko, eta nekazaritzan, industrian zein etxean dituen erabilera anitzak substantzia kimikoekin kutsatzeko aukerak sortzen ditu.

Kutsadura hori murrizteko, estrategia erkide bat abiarazi zen, 2015erako azaleko uren (iturburuak, iturriak, aintzirak eta kostaldeko urak) egoera ekologiko eta kimiko ona lortze aldera.

Horretarako, azaleko uretarako arriskua sortzen duten 45 "substantzia lehenetsi" identifikatu dira: horietatik, 21 arriskutsuak dira uretako organismoentzat, eta baten batek eragina du Elikagaien Segurtasunean (kadmioa, merkurioa, HAP, dioxinak, etab.)

URA USTIATZEA

- **Europar Batasuneko azaleko ur guztiaren % 20 kutsatzeko arrisku bizi dago.**
- Lurrazpiko urek Europako ur edangarriaren % 65 ematen dute.
- Europako hirien % 60k gehiegi ustiatzen ditu lurrazpiko ur-baliabideak.
- **Ur umelen % 50 "arrisku-egoeran" daude, lurrazpiko ura gehiegi ustiatzearen ondorioz.**
- Europako hegoaldean ureztatutako lur-eremua % 20 handitu da azken 25 urteotan.
- Planetako uraren % 1 baino gutxiago da gizakiek kontsumitzeko modukoa.

ERRAZ KUTSATZEN DA

Gaur egun eragindako kutsadurak zenbait belaunaldi iraun ditzake ur edangarri gisa erabiltzen diren lurrazpiko uretan.

Substantzia arriskutsu baten tanta bakar batek milaka ur litro kutsa ditzake.

Baliabide hidraulikoak urak nekazaritzan, industrian zein etxeko kontsumoan dituen erabilera anitzen bidez kutsatzen dira: hiritartze-lanak egitean, uholdeen aurkako babesak jartzean, elektrizitatea sortzean, produktu fitosanitarioak erabiltzean,

nabigatzean, hondakin-urak botatzean, kostaldea babestean, ur gezatan arrantzatzean, meatzaritzan eta basogintzan aritzean.

URAREN ESPARRU ZUZENTARUA

2000. urtean, Europar Batasunak *Urei buruzko esparru-zuzentaraua* (UEZ) sortu zuen, ura jatorritik bertatik (arro hidrografikoak) kudeatu eta babesteko kutsadura kimikoaren aurrean.

Horren bidez, **ikuspegi orokorra** ezarri zen, **ur-masa osoak babesteko: iturburuak, ibaiadarrak, deltak eta bokaleak (lurrazpiko urak barne).**



Bestalde, EBko zenbait politika bateratzea eta jardueren egutegi bat ezartzea xedatu zuen; zehazki, 2015. urtea ezarri zen gehienezko data gisa, Europako ur guztiak "egoera kimiko eta ekologiko onean" egon zitezen.

Uren kutsadura apurka-apurka murriztea lortzeko tresna nagusia Arroko Plan Hidrologikoak (APH) eta Neurri Lagungarrien Programa dira, eta 2015erako biak ezarrita egotea aurreikusitua zen.

AZALEKO URAK

Egoera ekologikoaren definizioak aintzat hartzen ditu **arrainen ugaritasuna eta uretako flora, nutrienten erabilgarritasuna eta beste alderdi batzuk; hala nola, gazitasuna, temperatura eta konposatu kimikoek eragindako kutsadura.**

Halaber, alderdi morfologikoak ere aintzat hartzen dira: kopurua, ur-jarioa, uraren sakontasuna eta ibaien ibilguen egiturak.

Beharrezkoa da uraren egoera ekologikoa eta kimikoa ona izatea, ekosistema naturalak eta gizakien zein animalien osasuna babesteko.

Azaleko uren egoera ekologikoa sailkatzeko eskemak bost kategoriatu:


- **Oso ona:** gizakiaren presiorik ez dagoela edo oso baxua dela esan nahi du.
- **Ona:** aurreko egoera "zertxobait" desbideratu dela esan nahi du.
- **Onargarria:** "neurritzko" desbideratzea dagoela esan nahi du.
- **Eskasa:** gizakiaren presioa handia dela esan nahi du.
- **Txarra:** gizakiaren jarduera oso handia dela esan nahi du.

Gaur egun, EBn azaleko uraren 100.000 masa baino gehiago daude: % 80 ibaiak, % 15 aintzirak, % 5 kostaldeko urak edo trantsizio-urak. Ibai bakar batek zenbait ur-masa izan ditzake, bere egoera aldakorra delako.



Ondoren agertzen den diagramako ibaiaren uren egoera ekologikoa ona da goi-ibilguan; baina, behera egin ahala, kutsadura kimikoa handitu egiten da.

Oso egoera ona Egoera ona Egoera onargarria



Egoera kimiko egokia definitzeko, **urteko gehienezko kontzentrazio onargarria** ezarri zen: "lehenetsitako substantzia" gisa definitutako 33 kutsatzaile kimiko.

Orain dela gutxi, 2013ko abuztuan (2013/39 Zuzentaraua) 12 konposatu kimiko berri sartu dira azaleko urak kutsa ditzaketen substantzia lehenetsien zerrendan; hala nola, produktu fitosanitarioak, biozidak eta errekontza-produktuak.

45 kutsatzaile kimikoetatik, 21 arriskua eragiten duten "substantzia lehenetsiak" dira. Horien artean daude kadmioa, merkurioa, HAPak, dioxinak eta PFOSak. Toxikotasun handia eta kronikoa eragiten dute uretako organismoetan. (*Ikusi eranskina*).

Uretako ekosisteman metatzen direlako eta toxikotasun handia dutelako, substantzia kimiko horiek elikakatean sar daitezke, **kutsatutako arrainak, mariskoak eta ura kontsumitzen badira;** beraz, giza osasunerako arriskua ekar dezakete.

Urak kutsatzen dituzten 45 substantzia "arriskutsu" daude, eta horietako batzuek mehatxua ekar dezakete Elikagaien Segurtasunerako, uretako organismoetan metatu egiten direlako (kadmioa, merkurioa, dioxinak, HAPak, etab.).

Eranskina. Uren politikaren esparruan lehenetsitako substantzien zerrenda (UEZ)

Lehenetsitako substantzia	Arriskutsua	Lehenetsitako substantzia	Arriskutsua
Alakloroa		Nonilfenolak	X
Antrazenoa	X	Oktolfenolak	
Atrazina		Pentaklorobentzenoa	X
Bentzenoa		Pentaklorofenola	
Defenileter bromatuak	X	Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAPak)	X
Kadmioa eta bere konposatuak	X	Simazina	
Kloroalkanoak	X	Tributilestainu-konposatuak	X
Klorfenbinfoak		Triklorobentzenoak	
Klorpirifoak		Triklorometnoa (kloroformoa)	
1,2-Dikloroetanoa		Trifluralina	X
Diklorometanoa		Dikofola	X
Di(2-etilhexilo)-ftlatoa	X	PFOS	X
Diurioia		Kinoxifenoa	X
Endosulfana	X	Dioxinak eta antzeko konposatuak	X
Fluorantenoa		Aklonifenoa	
Hexaklorobentzenoa	X	Bifenoxa	
Hexaklorobutadienoa	X	Zibutrina	
Hexakloroziklohexanoa	X	Zipermetrina	
Isoproturoia		Diklorboak	
Beruna eta bere konposatuak		Hexabromoziklododekanoak	X
Merkurioa eta bere konposatuak	X	Heptakloroa eta heptakloro-	X
Naftalenoa		Terbutrina	
Nikela eta bere konposatuak			

Beste alde batetik, 2013/39 Zuzentarau berriak azpimarratu egiten du **3 sendagaik** (etinilestradiola, estradiola eta diklofenakoa) uretarako edo, uraren bidez, giza osasunerako dakartzaten **arrisku emergenteak**. Batzordeak ebaluatu egingo ditu sendagai horiek ingurumenean eragiten dituzten ondorio kaltegarriak.

LUR AZPIKO URAK

Lurrazpiko urei buruzko arauak ezberdin xamarrak dira: helburua egoera kuantitatibo eta kimiko ona lortzea da.

Lurrazpiko urak ezin dira inola ere kutsatu: edozein kutsadura atzeman eta geldiarazi egin behar da.

Estatu kideek datu geologikoak erabili behar dituzte, lurrazpiko akuiferoen ur bolumenak identifikatzeko. Bestalde, Europako legeriak mugatu egiten du ateratzea; zehazki, urteko birkargatzeari dagokion ehunekoan.



UREN EGOERA 2012an

23 estatu kidek ezarri eta jakinarazi dituzte euren Arroko Plan Hidrologiko (APH) guztiak, 2015era begira UEZ betetzeko eta azaleko uren egoera biologiko eta kimiko egokia lortzeko.

4 estatu kidek (Belgika, Portugal, Espainia eta Grezia) **oraindik ere ez dute planik ezarri, edo batzuk besterik ez dituzte ezarri eta jakinarazi.** Orotara, Batzordeak 124 APH jaso ditu (174 espero zituen). Horien % 75 mugaz gaindiko arro hidrografikoei buruzkoak dira.

Ondorengo grafikoan azaltzen da 2012ko abenduan zein zen APHen ezarpenaren egoera:

- Berdea: ezarri da.
- Gorria: ez da ezarri edo zati batean ezarri da.



Estatu kide batzuen atzerapenak ondorio negatiboak ditu arroak partekatzen dituzten gainerako herrialdeetan.

ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

124 planen ebaluazioak erakutsi du **ur-masen zati handi baten egoera ekologikoa eta kimikoa ez dela ona izango 2015ean**, presio hidromorfologikoen, kutsaduraren eta gehiegizko ateratzeen ondorioz. Horiek dira, hain zuzen ere, ur-ingurugiroaren ahulguneak.



Batzordeak onartu egiten du gaitza dela ur-masa batzuen egoera ona lortzea, eta **estatu kideei** salbuespenak **baimentzen** zaizkie, ur-masaren baldintza naturalen arabera. Halaber, **epea 2027ra arte luzatzea ahalbidetzen da, betiere justifikatu egiten bada kutsadura kimikoa murriztea teknikoki ezinezkoa edo kostu handikoa dela.**

Gehiegitan, ezarritako APHei salbuespenetara jotzen dute, uraren erabilerak eta kudeaketa-jarduerak justifikatzeko. Horrela, erakutsi egiten da ez dagoela inolako planik UEZren helburuak lortzeko.

Nekazaritzak eragin handia du uretan, materia organikoaren eta produktu fitosanitarioek eragindako kutsadura mugatuaren edo hedatuaren bidez.



ESTEKA INTERESGARRIAK

- [Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2000/60/EE Zuzendaraua, 2000ko urriaren 23koa, ur-politiken esparruan jarduera-esparru erkidea ezartzen duena.](#)
- [Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2013/39/EE Zuzendaraua, 2013ko abuztuaren 12koa, aldatu egiten dituen 2000/60/EE eta 2008/105/EE zuzendarauak, ur-politiken esparruko substantzia lehenetsiei dagokienez.](#)
- [Uraren Esparru Zuzendarauaren ezarpena: 2012ko txostena, EBko uren egoerari buruzkoa](#)
- [Ingurumenaren Europako Agentzia](#)
- [Europako Batzordearen webgune ofiziala: ura](#)